

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

116/2024 Foru Agindua, azaroaren 15ekoa. Foru-dekretuaren proiektua egiteko prozeduraren hasiera, zeinaren bidez arautzen baitira laguntza behar duten adinekoentzako egoitza-zentroei Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin egoitza-plazak ituntzeko esparruan eskatzen zaizkien betekizunak, gutxieneko baldintza tekniko asistentzialak eta langile-baldintzak, bai eta ituntzeko prozedura ere

Otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzea, foru-agindu honen bidez hasten da prozedura hori.

Hasteko ebazpenak, aipatutako foru dekretuaren 13. artikulua xedatzen duen bezala, labur-labur adieraziko ditu ekimena justifikatzen duten xedea, helburua eta arrazoiak, haren bideragarritasun juridiko eta materiala, antolamendu juridikoan izango duen eraginaren hurbilketa, xede berarekin aldatuko den araudia eta egokitzat jotzen diren izapideen eta txostenen zerrenda.

Foru dekretu hori ez dago sartuta Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politiketako Sailaren 2024ko iraileko ekitaldirako Arau Planean – 2025eko martxoa.

Otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 12. artikulua ezartzen duenez, xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gaineko eskumena duen saileko titularrak hasiko du.

Hori guztia dela eta, nire eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Foru-dekretuaren proiektua egiteko prozedura hastea, zeinaren bidez arautzen baitira laguntza behar duten adinekoentzako egoitza-zentroei Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin egoitza-plazak ituntzeko esparruan eskatzen zaizkien betekizunak, gutxieneko baldintza tekniko asistentzialak eta langile-baldintzak, bai eta ituntzeko prozedura ere.

a) Xedea eta helburua.

Foru-dekretu berri honen bidez, mendekotasuna duten adinekoentzako egoitza-zentroei Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin egoitza-plazak ituntzeko esparruan eskatzen zaizkien betekizunak eta gutxieneko baldintza tekniko eta asistentzialak eta langileei buruzkoak arautu nahi dira, bai eta ituntzeko prozedura ere, Arabako Lurralde Historikoan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako itun sozialaren araubidea eta hitzarmenak arautzen dituen azaroaren 7ko 168/2023 Dekretuaren araudia egokituz eta garatuz, 168/2023 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.

Erregulazio horrek bi helburu ditu:

1. Mendekotasuna duten adinekoentzako egoitza-zentroei eskatzen zaizkien betekizunak eta baldintza tekniko asistentzialak, eta langile-arloak ezartzea, haien plazak Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin (aurrerantzean, GOFE) itundu ahal izateko.

2. Oinarrizko alderdietan, GOFEk plazak ituntzeko prozedura arautzea, artikulua honen a) letran eskatzen diren egikaritze-betekizunak eta -baldintzak betetzen dituzten zentroak mendeko dituzten erakundeekin, eta itun horri lotutako betebeharrak ezartzea, sektore publikoko kontratuen arloan indarrean dagoen araudiaren esparrua.

b) Bideragarritasun juridiko eta materiala.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren integratutako gizarte-zerbitzuak egituratzen dituenak, Eusko Jaurlaritzari, foru-aldundiei eta udalei esleitutako eskumenak esleitzen ditu.

185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa garatzen duena (Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22. artikuluan arautua), 41.3 artikuluan, Arabako Foru Aldundiari ematen dio Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzuak hornitzeko eskumena (zuzeneko ekintzaren esparruan Eusko Jaurlaritzari esleitutakoak izan ezik), Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogo horretan jasoak.

Otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretuak, Diputatuen Kontseiluarenak, Gizarte Zerbitzuen Departamentuaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duenak, haren eginkizunak eta eskumenak ezartzen ditu 1. artikuluan, eta honako hauek dagozkie: hirugarren adina, desgaitasuna, haurrak eta familia, oinarrizko gizarte zerbitzuak, prestazio ekonomikoak eta ordenamendu juridikoak ezartzen dizkion gainerakoak. Era berean, 3. artikulua Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikitzen dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde (GOFE) Autonomia, eta haren helburuak honako hauek dira: Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuekin lotutako jarduerak antolatu, kudeatu, eman eta gauzatea.

c) Ordenamendu juridikoan izango duen eragina.

Foru-dekretuaren proiektua egiteko prozedura hastea, zeinaren bidez arautzen baitira laguntza behar duten adinekoentzako egoitza-zentroei Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin egoitza-plazak ituntzeko esparruan eskatzen zaizkien gutxieneko eskakizun eta baldintza tekniko asistentzialak eta langile-betekizunak, bai eta ituntzeko prozedura ere.

Foru Dekretu hori ez dago sartuta Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Politiketako Sailaren 2024ko iraileko ekitaldirako Arau Planean – 2025eko martxoa.

Hala ere, Gizarte Politiketako Sailak beharrezkotzat jotzen du araudi berri hori premiaz onartzea, Arabako Lurralde Historikoan erregulazio propioa ezartzeko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren itun sozialaren araubidea eta hitzarmenak arautzen dituen azaroaren 7ko 168/2023 Dekretua garatuz. Esparru juridiko propioa ezarri da, mendekotasuna duten adinekoentzako egoitza-zentroei eskatzen zaizkien betekizunak eta baldintza tekniko-asistentzialak eta langile-baldintzak arautzeko, eta, besteak beste, mendekotasuna duten adinekoei eguneroko bizitzako jarduerak egiteko behar dituzten zaintzak eta laguntza pertsonala bermatzeko, autonomia pertsonalari eusten saiatzeko eta, ahal den neurrian, haren garapena sustatzeko eta narriadura saihesteko.

d) Aurrekontuan eta ekonomian izango duen eragina.

Erregulazio berriak aurrekontu-eragina du.

e) Proiektua izapidetzea.

Hura egiteko, proposatutako araudiaren gaia eta edukia direla eta, egokitzen diren izapide eta txostenak egin beharko dira, otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuarekin bat etorriz. Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzea.

Lehenik eta behin, hasierako foru-agindu hau onetsiko da, eta, alde aurreko onarpena eman ondoren, testua entzunaldi- eta jendaurreko informazioaren izapidearen mende jarriko da, Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 6/2023 Dekretuaren 14. artikulua aplikatuz, eta ez da beharrezkoa izango aurretiatzeko kontsulta publikoaren izapidea egitea, 6/2023 Foru Dekretuaren 10. artikuluko e) eta g) letretan xedatutakoaren arabera.

Jarraian, nahitaezko txosten hauek bilduko dira:

1. Arau-eraginari buruzko txostena.
2. Generoaren eta berdintasunaren araberrako eraginari buruzko txostenak.
3. Aholku batzordearen txostena.
4. Ekonomia- eta araudi-kontrolari buruzko txostena.

Era berean, Idazkaritza Nagusiaren legezketasun-kontrolaren mende jarriko da, ondoren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluari aurkezteko eta Foru Gobernu Kontseiluak foru-dekretua onartzeko eta, ondoren, ALHAOn argitaratzeko.

f) Arau-testua bi hizkuntzetan idazteko metodoa.

Bi hizkuntza-bertsio ofizialen artean (gaztelania eta euskara) egon behar duen baliokidetasun juridikoaren printzipioa gauzatzeko, Arabako Foru Aldundiko Funtzio Publikoaren Zuzendaritzako Euskara Zerbitzuak egingo du arau-testuaren euskararako itzulpena.

Bigarrena. Onartzea foru dekretuaren proiektua, zeinaren bidez arautzen baitira laguntza behar duten adinekoentzako egoitza-zentroei Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin egoitza-plazak ituntzeko esparruan eskatzen zaizkien betekizunak, gutxieneko baldintza tekniko asistentzialak eta langile-baldintzak, bai eta ituntzeko prozedura ere.

Hirugarrena. GOFeko Kudeaketako Zuzendaritzaren eta erakunde horretako Kontratazio eta Araubide Juridikoaren Arloa izendatzea hura izapidetzeko organo arduradun.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 15a

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua
GORKA URTARAN AGIRRE

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria
ANA BELÉN OTERO MIGUÉLEZ